

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIAHERRITARREKIKO ETA
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

Foru Gobernuak pertsona itsuei dokumentu judizialak eskuratzeko aukera emango die

Beaumont kontseilariak eta Nafarroako ONCEko arduradunak gai horri buruzko lankidetzaz hitzarmena sinatu dute

Lunes, 07 de diciembre de 2015

Nafarroako Gobernuak ikusteko desgaitasuna duten pertsonen Justiziako Administrazioarako irisgarritasun unibertsala erraztuko die; hala, dokumentu judizialak kolektibo horretarako irisgarriak diren formatuetan emango dizkie.

Nafarroako Lehendakartzako, Funtzio Publikoko, Barneko eta Justiziako kontseilari M^a Jose Beaumont Aristu kontseilariak eta Foru Komunitateko ONCEko Lurralde Kontseiluko lehendakari Valentín Fortún Arriezu lehendakariak lankidetzaz hitzarmena sinatu dute ildo horretan; haren bidez, babes judizial eragingarria eta ikusteko desgaitasunen bat duten pertsonentzako aukera-berdintasunaren printzipioa bermatu nahi dira.

Estatu-mailan ONCEk izenpetzen duen era honetako lehen hitzarmena da.

Dokumentuan finkatzen denaren arabera, Foru Administrazioak euskarri informatiko bat garatzeko konpromisoa hartzen du eta, horri esker, ONCEko kideen esku dokumentazio judiziala (jakinarazpenak, zitazioak...) pertsona horientzako formatu irisgarrietan jarriko ahalko da.

Bestalde, ONCEk bazkideen fitxategiak eta eguneratutako datu-baseak emateko konpromisoa hartzen du, bai eta boluntarioak izateko ere pertsona itsuei laguntzeko eraikin judizialekara joan behar dutenean.

Nafarroan ikusteko desgaitasuna duten 810 pertsona daude gaur egun.



Valentín Fortún hitzarmena sinatzen, Beaumont kontseilaria alboan duela.